

GIZON BI



Gizon zuriz ederki
 janzi bat bidean
 zijoala, beste bat
 arrimaturik an,
 eta biyak alkarri
 beren itz taldea,
 emanik, pasa zuten
 chit ongi bidea.
 Gabaz benta batean
 sarturikan biyak,
 lotarako eskatu
 baitzituzten oyak;
 eta zuriz janziya
 ametsetan asi
 zanean, zan bestea
 aren soñez janzi;
 eta bere arropak
 utzirikan bertan,
 itzul diru ta guzi
 mendira joan baitzan.
 Artan esnaturikan
 beste lo zegoana,
 eta ezaguturik
 egin zion lana,
 segiruban jaikita
 soin arrek utziya
 janzirik, zan beraren
 ondoren abiya;
 artarako zakurra
 ere baitzeraman,
 eta ontaz nai zion
 kastigu bat eman;
 bañan nola gertatzen
 baitzan illargiya,
 eta zegoan kanpoa

biziro argiya,
 soin zuririk argitan
 ikusitzen etzan,
 eta lapurra uste
 berean gorde zan,
 esanaz: nekatu naiz
 korrika bidean,
 eta nagon arbola
 onen itzalean;
 ez naute ikusiko
 illuntasun ontan,
 geldi niteke bada
 bertan emen lotan;
 bañan ¡o! non gordeko
 zan illunbe artan,
 soin zuri zeramana
 an argitzen baitzan;
 eta ala bestek
 non zan nabaiturik,
 eta beraganako
 bidea arturik,
 allegatu zanean,
 zakurra gañera
 botarik, izan zuben
 puskatzeko era.

.

Onek erakusten da
 lapurrak argiyak,
 izan arren, ditula
 galtzen illargiyak;
 da esatea ustez
 argiyak naiz izan
 deskuidatzen dirala
 tontuaren gisan.

RAMÓN ARTOLA.

